Frantzia pasealekuko lorategiak berrituko dira, Urumea ibaiaren alegoria botaniko bat den "Lorategi Distiratsua" izeneko proiektuarekin

Lanak urriaren amaieran hasiko dira, eta udazkenean hiriko gainerako eremuetan egiten diren landaketekin batera egingo dira.

Donostiako Udalak, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako Zuzendaritzaren eta Parke eta Lorategien Atalaren bitartez, Frantzia pasealekuko lorategiak erabat berrituko ditu. Proposamenak Jardín del Destello/Lorategi Distiratsua izena du, non landareak ez diren apaingarri hutsak, mugitzen ari den uraren eta haren distiren abstrakzio bat baizik.

Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari Iñigo García Villanuevak adierazi duenez, "esku-hartze integral bat egin nahi dugu, punta-puntakoa, Frantzia pasealeku osoari irudi bateratua eta berritua emateko. Landaketa askoz ere naturalagoa izango da, eta hainbat espezie, altuera eta testura izango ditu. Urtean zehar eboluzionatzen eta aldatzen joango da".

Jarduketa erabat luzetarakoa izango da, eta lorategi-zerrenda osoan egingo da (350 metro). Paisaia bizia, dinamikoa eta konposizio zurrunetatik urrun dagoena planteatzen du proposamenak, harien moduan gurutzatzen diren bi landare-korronteren kontzeptuan oinarrituta:

1. **"Ibai Berdea":** egitura-oinarria da, eta iraunkorra da urte osoan. Bizikorrek, gramineoek eta arkitektura-espezieek osatzen dute, bolumena eta testura emateko.
2. **"Ibai Horia":** argi-korronte gisa funtzionatzen du, eta urtaroen arabera aldatzen da. Loraldi zoragarriak ematen ditu hori kolorean, ildo nagusi gisa, baina ñabardura piktoriko aberasgarri gisa, abrikot, granate, more eta txuri koloreko loreak ere ematen ditu, Urumea ibaian eguzkiak sortzen dituen distirak imitatuz.

Hiru dimentsioko diseinua, oinezkoen eskalan

Lotura horrek argi- eta geometria-estrategia argi bati erantzuten dio, Urumearen distira lorategi bihurtu nahi baitu: parterre luzeak txandakatuta ageri dira, eta horien trazadura bihurgunetsua da. Horri esker, Ibai Horiaren argi sutsua pasealekuaren ertzetara iristen da eta Ibai Berdearen egitura iraunkorraren barruan sartzen da. Hala, marrazki dinamiko bat sortzen da, zeinak

sakontasuna ematen duen eta landarearen erabilera optimizatzen duen, betiere espazioa saturatu gabe.

Ikus-egoera horrek erabateko zentzua du pixkanakako agerpenaren kontzeptuari esker: oinezkoak aurrera egiten duen heinean, paisaia deskubritzen du; hiru dimentsioko efektu hori hiru altuera-estraturen bidez lortzen da (baxua, ertaina eta altua), eta hiru dimentsio horiek elkarren artean osagarriak dira, korronte horiaren erreflexuek modu harmonikoan flotatzen dutela eta gizakien begiradaren aurrean beti ikusgai daudela bermatzeko, hain zuzen ere bizikorren eta gramineoen bolumenen eta mugimenduen artean.

Ziklo naturala besarkatzen duen paisaia

Azken urteotan, nartziso ugari landatu dira eremu horretan, baina denborarekin horien dentsitatea murriztu denez, proiektu honekin, eremu horren itxura aldatzea proposatzen da. "Gure helburua da espazio horren mailan dauden lorategiak izatea urte osoan zehar", adierazi du zinegotziak. "Urtaro guztietan, lorategi horiek interesa, kolorea, bolumena, mugimendua eta bizia izatea nahi dugu, eta haien erakargarritasuna loraldiaren aste jakin batzuen mende ez egotea".

Sistema natural bizia denez, lorategi horiek hainbat egoera izango dituzte urtaroaren arabera: udaberrian leherketa kromatikoko uneak egongo dira, sasoiko 7.700 landare eta 4.564 erraboil-landare loratuko direlako; beste une batzuk, berriz, lasaiagoak izango dira, lore gutxiago egongo baitira eta landareek tonalitate ahulagoak eta lehorragoak izango baitituzte. Hala ere, urte osoan, lorategiek beren kohesioari eta izaerari eutsiko diote. Horrez gain, gramineoek mugimendua emango diete lorategiei, ipar-haizearekin bisualki erreakzionatuko baitute, lorategiak ibaiaren uhinekin duten konexioa indartuz. Proposamenaren arabera, guztira 15.472 landare-unitate landatzea aurreikusten da.

Biodibertsitate eta konektore ekologiko gehiago

Espezieen hautaketak ez ditu irizpide estetikoak soilik kontuan hartzen; aitzitik, hiri-biodibertsitatea sustatzera eta konektore ekologiko gisa jardutera bideratutako azpiegitura gisa diseinatu da. Hainbat egitura botaniko konbinatzean eta loraldiak mailakatzean, parterreak babesleku ezin hobea izango dira polinizatzaileentzat eta fauna osagarriarentzat, eta intsektu onuragarrientzako erakarpen-foku gisa espezie estrategikoak erabiliko dira (lamiazeoak, adibidez).

Donostiarako paisaia-sinadura bat

Azken finean, esku-hartzearen helburua Frantzia pasealekuari paisaia-sinadura propioa ematea da, Donostiaren izaerarekin bat datorrena. Ibai Berdearen egitura jarraituaren eta Ibai Horiaren argi iragankorraren arteko loturari esker,

lorategi horiek paisaia bizi eta jarraitu bihurtuko dira; Urumea ibaiaren jarioaren alegoria botaniko bat.
Era berean, zinegotziak azpimarratu du Frantzia pasealekua Donostiara sartzeko gune nagusietako bat dela: "hiriaren aurkezpen-gutunetako bat da. Egunero, milaka pertsona igarotzen dira inguru horretatik, eta, askorentzat, tren-geltokitik edo autobus-geltokitik irteten direnean ikusten duten lehen espazioetako bat da. Lehenengo irudi hori hiri zaindu eta berde batena izatea nahi dugu, non kalitatezko lorategiak dauden".

Lanak urriaren amaieran hasiko dira, eta udazkenean hiriko gainerako eremuetan egiten diren landaketekin batera egingo dira.